

jarduerak
2021eko MARTXOA-APIRILA





Azaleko irudia Elena Araujo Esponerarena da, “Imagina CIVICAN” du izena, eta X. Imagina CIVICAN Diseinu Lehiaketako finalista izan zen.

CIVICAN - Nafarroako Kutxa Fundazioaren Zentro Kulturala

Pio XII.aren etorbidea, 2, 31008 PK Iruñea - T 948 222 444

www.fundacioncajanavarra.es

informacioncivican@fundacioncajanavarra.es

Facebook - @civicanFCN - @FundCajaNavarra - #ParaPersonas

DL: NA-1175-2016

CIVICAN, NAFARROAKO KUTXA FUNDazioAREN ZENTRO KULTURALA



ZER DA CIVICAN?

Nafarroako Kutxa Fundazioaren zentro kulturala da, belaunaldien arteko eta diziplina anitzeko topagune bat, eta helburu du Nafarroako kultura eta hezkuntza ekosistema bultzatzea eta aktibatzea, elkartasuna eta gizarte ekintza sustatzea, bai eta pentsamendua eta filosofia ere, jasangarritasun kontzientzia indartsuarekin, herritarren parte hartze aktiboa bermatzeko.

CIVICANek hainbat gela eta areto ditu: 153 lagunentzako entzunaretoa, liburutegi bat bi irakurketa gelarekin, erakusketetarako gune bat atarian, erabilera anitzeko lau gela, sukaldea, dantza aretoa, igerileku girotua eta, gainera, kafetegia.

CIVICAN galdera berriak proposatzeko gunea da, aztertu, ikasi, kontzeptualizatu eta hausnartzeko leku bat, eta komunitateko kultura garapenaren funtsezko eragile bihurtzeko bokazioa du. Zentroaren azken xedea da kultura eta hezkuntza ekosistema sustatzea eta aktibatzea, elkartasuna, gizarte ekintza, literatura, pentsamendua, filosofia eta jasangarritasunaren kontzientzia sustatzea, eta Nafarroako herritarren parte hartze aktiboa bultzatzea, ikastaro, esperientzia eta laborategi anitz eta inklusiboak eginez, bai eta sorkuntza ekintzekin ere, jakin-minaren inguruan komunitateak sortzeko, eta, era berean, ingurunean eragin ekonomiko positiboa eta hezkuntzan, kulturen eta gizartean ere eragina izateko.

CIVICAN PROGRAMA MARTXOA-APIRILA 2021

Nafarroako Kutxa Fundazioak pentsatzeko eta hausnartzeko programak proposatzen ditu bere zentro kulturealean hilabete hauetarako, CIVICAN ikuspegiak partekatzeko eta errealtatea eta bere erronkak zalantzan jartzeko lekua izan dadin; oraina hobeto ulertzeko, iragana ezagutzeko eta hartatik ikasteko, eta etorkizuna amesteko lekua izan dadin.

Pentsamendu laborategien aldeko apustu irmoa egingo da, hausnartetarako tresna gisa, eta bitartekaritzaren aldekoa, metodologia gisa.

CIVICANek lanean jarraitzen du Nafarroako herritar guztiei programazio egokia eskaintzeko, kultura blokeen inguruan komunitateak sortuta. Hori lortzeko, beste entitate batzuekin eta Nafarroan bizi eta lan egiten duten kultura eta gizarte eragile eta sortzaile nagusiekin sarean egiten den lana indartzen da.

Horrela, CIVICANen misio nagusiari erantzuten zaio: egungo gizarteak di-tuen erronkei erantzutea, ikuspegi ludiko, sozial, konprometitu eta garaikide batetik.



10 INFORMAZIOA

- Nola iritsi
- Ordutegiak
- CIVICAN sare sozialetan
- Jardueretan parte hartzea
- CIVICAN, gune segurua
- Aretoak uztea eta alokatzea
- Nola iritsi

12 BITARTEKARITZA

- Pertsonak pertsonekin
- Encontrar la danza



14 #LabCIVICAN

- Propuestas para compartir el conocimiento
- El reto del consumo responsable



16
ELKARTASUNA

- Comunidades en red
- Contextos



**ez huts
egin!**



20
KULTURA

32
HEZKUNTZA

- Jakin Mina 2020-2021 Nafarroan
- Ikastaroak
- Elkarriketa taldeak



- Perspectivas
- Aula del pensamiento
- En clave de #F
- HuELLAS en femenino
- XI Certamen de diseño Imagina CIVICAN
- Ikastaroak

36
FAMILIAK

- Mi primera vez
- ArtLAB
- (Re)Pensar la ciudad que habito
- La hora del cuento

- Escaparate de lecturas
- Tertulias literarias
- Vecinos de letra – Letrakide
- Leer con los cinco sentidos
- Abril, el mes del libro
- De viva voz
- La biblioteca con las personas mayores
- #Biblioteca, #territoriojoven
- Conoce tu biblioteca
- Programa biblioteca – escuela



44
LIBURUTEGIA

ASTELEHENA

1 **ESCAPARATE DE LECTURAS** 46. or.
Martxoa poema artean
(martxoaren 31ra arte)

LABORATORIO DE PENSAMIENTO 15. or.
11:00 - 13:30 Ezagutza
partekatzeko proposamenak

BOZ GORAN 57. or.
18:00 (apirilaren 26ra arte)

8 **LABORATORIO DE PENSAMIENTO** 15. or.
11:00 - 13:30 Ezagutza
partekatzeko proposamenak

IKASTAROA 31. or.
Mirada, voz y estilo en la creación
de una novela
(astelehenetan martxoaren 29ra
arte)

IKASTAROA 39. or.
18:00 a 19:00 Laboratorio de arte y
creatividad (apirilaren 19ra arte)

15

BITARTEKARITZA 13. or.

19:00 - 20:30 Dantza aurkitzea

KAPSULA 17. or.

Gelditasunean aktibo

> www.fundacioncajanavarra.es

IKASTAROA 30. or.

Expediciones musicales

(apirilaren 23ra arte)

22

KAPSULA 27. or.

Diseinu finalistak

> www.fundacioncajanavarra.es

29

ESCAPARATE DE LECTURAS 46. or.

Saga fantastikoak

(apirilaren 30era arte)

ASTEARTEA

2 **BISITA GIDATUAK** 27. or.
12:00 - 13:00 Diseinatzeko
ezagutu

LITERATUR SOLASALDIAK 48. or.
18:00 Ipuinen behatokia

FRANTSESEKO ELKARRIZKETA TALDE EGONKORRA 35. or.
19:00 - 21:00

(asteartetan ekainaren 15era arte)

9

LITERATUR SOLASALDIAK 47. or.

18:00 Kafea liburuekin:

XX. mendeko klasikoak

16

LITERATUR SOLASALDIAK 47. or.

18:00 Itaka

LIBURUTEGIAESKOLA PROGRAMA 62. or.

18:00 Irakasleentzako bisita
gidatuak

23

LITERATUR SOLASALDIAK 48. or.

18:00 Liburuz liburu: Ispiluen

isla ezberdinak

30

LITERATUR SOLASALDIAK 48. or.

18:00 Ipuinen behatokia:

oihana haurrentzako bi
klasikotan

ASTEAZKENA

3 **BISITA GIDATUAK** 27. or. 12:00 - 13:00
Diseinatzeko ezagutu

IKASTAROA 34. or.
18:30 a 20:30 *Visual Thinking*:
dibujando el pensamiento
(asteazkenetan martxoaren 29ra arte)

INGELESEKO ELKARRIZKETA TALDE EGONKORRA 35. or.
19:00 - 21:00

(asteazkenetan ekainaren 16ra arte)

10 **IKASTAROA** 38. or.
10:30 a 12:00 Criando en
armonía
(asteazkenetan,
martxoaren 31ra arte)

IPUINAREN ORDUA 42. or.
18:00 - 19:00 Abenturak ipuinak
pontzarekin

ENTZUNALDI GIDATUAK 24 or. 7. zikloa/NOS.
Funtsezkoaren poetak

17

KONTZERTUA 24. or.

19:30 Ganbera Kontzertua.

Emakume musikagileak

musikaren historian

24

IPUINAREN ORDUA 42. or.

18:00 a 19:00 Cuentos

floripondios

HITZALDIA 21 or.

19:00 La búsqueda de lo
humano en la era de
los algoritmos

31

SARI BANAKETA 27. or.
12:30 Imagina CIVICAN

TOPAKETA 18. or.
19:00 Aspalidiko ezagunak,
erronka berriak

EGUTEGIA 2021EKO MARTXOA-APIRILA

OSTEGUNA

4

**EUSKARAKO
ELKARRIZKETA TALDE
EGONKORRA** 35. or.
19:00 - 21:00
(ostegunetan ekainaren
17ra arte)

11

IKASTAROAK 28. or.
19:00 - 20:30
Pensamiento crítico
(ostegunetan apirilaren 29ra
arte)

ENCUENTRO 50. or.
19:30 La barrera más bonita
del mundo

18

TOPAKETA 51 or.
19:30 La poesía, un vestido de
lentejuelas

25

**POESIA
ERREZITALDIA,
ARGAZKILARITZA
ETA DANTZA** 53. or.
19:30 El cuerpo secreto
de la rosa

OSTIRALA

5

**LABORATORIO DE
PENSAMIENTO** 15. or.
11:00 - 13:30 Ezagutza
partekatzeko proposamenak
LITERATUR SOLASALDIAK
49. or. 18:00 Ostiralean... komikiak
PERFORMANCEA 26. or.
19:00 En la roca turquesa el papo
ERAKUSKETA 26. or.
En la roca turquesa el papo
(martxoaren 18ra arte)
KAPSULA 26. or. Femmes
>www.fundacioncajanavarra.es

12

**LABORATORIO DE
PENSAMIENTO** 15. or.
11:00 - 13:30 Ezagutza
partekatzeko proposamenak
HITZALDIA 33. or.
17:30 Jakin Mina
TAILERRA 40. or.
18:00 a 19:30 Mi cámara y yo
**LITERATUR
SOLASALDIAK** 49. or.
18:00 Ostiralean... komikiak

19

IKASTAROAK
28. or. 16:30 - 20:30 La
voz en la mezcla musical
TAILERRA 40. or.
18:00 - 19:30 Expresionarte
KAPSULA 58. or.
La Joko-tic: joko sorta bat
>www.fundacioncajanavarra.es
**LITERATUR
SOLASALDIAK** 49. or.
18:00 Ostiralean... komikiak

LARUNBATA

6

13

20

27

IGANDEA

7

14

21

28

ASTELEHENA

ASTEARTEA

ASTEAZKENA



5

6

ESCAPARATE DE LECTURAS 46. or.

Editore lanbidea
(apirilaren 30era arte)
Alegiazko fabulak
(apirilaren 30era arte)

OSPAKIZUNA 54. or.
18:00 Haur Liburuaren
Nazioarteko Eguna

LEHIAKETA 54. or. Fabuletako bikoteak (apirilaren 16ra arte)

7

IPUINAREN

ORDUA 42. or.
18:00 - 19:00 Cuentos fabulosos

KONTZERTUA 25. or.
19:30 5. Garbera
Kontzertua. Jeinu baten
goiztiartasuna

12

BITARTEKARITZA 13. or.
19:00 - 20:30 Dantza aurkitzea

KAPSULA 17. or.
Independentek eta biziak
>www.fundacioncajanavarra.es

IKASTAROA 29. or.
17:30 - 19:00 La Guerra Civil
Americana (astelehenetan,
apirilaren 26ra arte)


13

LITERATUR SOLASALDIAK 47. or.

18:00 Kafea liburuekin:
XX. mendeko klasikoak

14

ENTZUNALDI
GIDATUA 25. or.
19:30 9. zikloa/ NOS.
Barne bidaia



19

20

LITERATUR SOLASALDIAK 48. or.

18:00 Liburuz liburu: Ispiluen
isla ezberdinak

21

IPUINAREN

ORDUA 42. or.
18:00 - 19:00 Fish's dreams

IKASTAROA 18. or.
18:30 - 20:30 Pandemia de la
desigualdad, el gran desafio

HITZALDIA 23. or.
19:00 Libertad



26

27

LITERATUR SOLASALDIAK 47. or.


18:00 Itaka
LIBURUTEGIAESKOLA
PROGRAMA 62. or.
18:00 Visitas guiadas para
docentes

28

IKASTAROA 18. or.
18:30 - 20:30 Pandemia de la
desigualdad, el gran desafio


EGUTEGIA 2021EKO MARTXOA-APIRILA

OSTEGUNA




1

OSTIRALA



2

LARUNBATA



3

IGANDEA



4



8

LABORATEGIA 41. or.
18:00 - 20:00 Habitatze
galaktikoa: minigeropolisa



9


LABORATEGIA 41. or.
18:00 - 20:00 Habitatze
galaktikoa: geropolisa
**LITERATUR
SOLASALDI** 49. or.
18:00 Ostiralean... komikiak



10



11



15

TOPAKETA 52. or.
19:30 *La editorial*: ficciones y
realidades




16


HITZALDIA 22. or.
19:00 El reto de la investiga-
ción de enfermedades por
envejecimiento
CURSO 38. or.
17:00 - 18:00 La magia de las
texturas
**LITERATUR
SOLASALDI** 49. or.
18:00 Ostiralean... komikiak



17




18



22

**LABORATORIO DE
PENSAMIENTO** 15. or.
18:00 - 20:30 Kontsumo
arduratsuen erronka
HITZALDIA 19. or.
19:00 Cómo afrontar la
posguerra social del Covid




23

**LABORATORIO DE
PENSAMIENTO** 15. or.
18:00 - 20:30 Kontsumo
arduratsuen erronka
EXPERIENCIA 37. or.
17:30 y 18:30 Bú
**LITERATUR
SOLASALDI** 49. or.
18:00 Ostiralean... komikiak



24



25



29



30

IKASTAROA p.38
17:00 a 18:00 La magia de las
texturas
**LITERATUR
SOLASALDI** 49. or.
18:00 Ostiralean... komikiak

INFORMAZIOA

NOLA IRITSI

CIVICAN - Pio XII.aren etorbidea, 2, 31008 PK Iruñea - T 948 222 444



Autobusez. Geltokia gertu duten lineak: 1, 4, 8, 9, 10, 12, 15 eta 18



Bizikletaz. Aparkalekua sarrera nagusian.



Autoz. Aparkaleku publiko bat hurbil.

ORDUTEGIAK

Informazio puntua - Astelehenetik ostiralera: 9:00-21:00

Programazio bulegoa - Astelehenetik ostiralera, 09:00-14:00 eta 17:00-20:00

Liburutegia (12 urtetik gora) - Astelehenetik ostiralera, 09:00-14:00 eta 16:00-21:00.

Haur liburutegia (3-12 urte) - Astelehenetik ostiralera, 17:00-20:00.

Oporraldian, astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Kafetegia - Astelehenetik ostiralera, 09:30-14:00 eta 16:00-21:00

CIVICAN SARE SOZIALETAN

Zentroaren jardura sare sozialetan azaldu eta partekatzen da. CIVICANek profil aktiboa du Youtube, Twitter eta Facebook-en. Gainera, www.fundacioncajanavarra.es webgunean ikus daitezke programa, zerbitzu eta jarduerak, baita Nafarroako Kutxa Fundazioaren jarduerari buruzko berri garrantzitsuenak ere. Halaber, liburutegiak informazioa eskaintzen du www.bibliotecas-publicas.es/civican/ webgunean eta civicanlib.blogspot.com blogean.

JARDUERETAN PARTE HARTZEA



Entzunaretoko jardura guztiak streaming bidez emanen dira, Nafarroako Kutxa Fundazioak YouTube duen kanalaren bidez, kontrakoa adierazi ezean.



CIVICAN gune irisgarria da. Entzunaretoko jardura guztiak irisgarriak dira entzumen desgaitasuna duten pertsonentzat, begizta magnetikoaren bitartez.



Pertsona gorrentzat irisgarriak izan daitezen zeinu hizkuntzako interpreteekin eta/edo azpitituluekin egiten diren jarduerak dagozkion sinboloekin adierazita daude.

Eraikin eta erakusketetarako sarrera librea eta doakoa da.

Besterik adierazi ezean, jardueretara* sartzeko plaza erreserbatu behar da posta elektronikoz (informacioncivican@fundacioncajanavarra.es) edo Nafarroako Kutxa Fundazioaren Linean (948 222 444), otsailaren 25eko (osteguna) 09:00etatik aurrera, edukiera bete arte. Pertsona bakoitzak 2 erreserba egin ditzake gehienez.

*Jarduerak arautzen ditu 2/1989 Foru Legeak, martxoaren 13koak, Ikuskizun Publikoei eta Josteta Jardueri buruzkoak.



CIVICAN, GUNE SEGURUA

Nafarroako Kutxa Fundazioak, gaur egungo araudian ezarritako higie-ne eta segurtasun neurri guztiak hartu ditu. Zentroaren kontingentzia plan orokorra egin da, maskara nahitaez erabili behar da eta pertsonen artean 1,5 m-ko tarte-a bermatzen da. Gainera, gela guztietan hidrogel banagailuak jarri dira, bai eta seinaleak ere zirkulazioa ordenatzeko. CIVICANeko langileek formakuntza jaso dute erabiltzaileekin jarduteko moduari buruz, ikastaro, tailer eta jardueretan parte hartzea eta zerbitzuak erabiltzea segurua izan dadin.

ARETOAK UZTEA ETA ALOKATZEA

CIVICANek aretoak eskaintzen ditu era guztietako erabileretarako: hitzaldiak, aurkezpenak, ikastaroak, bilerak, kontzertuak, jardunaldiak eta biltzarrak CIVICANek aretoak doan utzi edo alokatzen dizkie helbide soziala Nafarroako Foru Erkidegoan duten irabazi asmorik gabeko erakunde, instituzio edo fundazioei. Aretoak uzteko eta alokatzeko araudia, bai eta eskaera fitxa ere, Nafarroako Kutxa Fundazioaren webgunean eskuratu daitezke:

www.fundacioncajanavarra.es/es/educacion-y-cultura/civican#cesionalquiler



- > Pertsonak pertonekin
- > Encontrar la danza

BITARTEKARITZA

2021eko martxo-apirileko jarduerak

BITARTEKARITZA

Pertsonak pertsonekin

> Nafarroako Kutxa Fundazioak Nafarroan bizi diren eta lan egiten duten pertsonak ditu bere jardueraren jomugatzat, eta bizitza kulturean parte har dezaten bermatzen du CIVICAN proiektuaren bitartez, erakundearen kultura zentroa, egoitza Iruñean duena eta 2003an inauguratu zutena.

Pertsonen konpromiso hori betetzeko, ezinbestekoa da kultura bitartekaritza gizarte eraldatzeko eta herritartasuna eraikitzeo estrategiatzat hartzea. Ildo horretan, bitartekaritza izango da eguneroko bizitzaren eta alderdi kultural, artistiko eta sozialaren artean komunitateak sortu, elkartu eta sozializatzeko prozesu berriak aktibatzeo estrategia.

Espazio eta erakunde kultural nagusientzat, bitartekaritza zera da, “funtzio berri bat, jendea ideia, proposamen eta proiektuekin konektatzeko, horiek gauza ditzen. Espazio berean biltzea proiektu eta proposamen desberdinak dituzten pertsonak”. Beste ikuskera batzuen arabera, “bitartekaritza gatazken negoziazioa eta irtenbidea da, eta truke harremanak sortzeko bidea”. CIVICAN kultura zentroan, Nafarroako Kutxa Fundazioak pertsonen bizimodua hobetzeko tresna gisa erabili nahi ditu bai espazio fisikoa, baita bertako zerbitzuak, baliabideak eta profesionalak ere, eta helburu hori inoiz baino garrantzitsuagoa da gaur egun, Covid-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondorioz.

Erabiltzaileengandik hurbil egotea eta haien bidelagun izatea eskaintzen diren prozesu, zerbitzu eta programetan parte hartzen dutenean.

Pertsonak pertsonekin.

Encontrar la danza

Martxoak 15 eta apirilak 12, astelehenak, 19:00-20:30. 3. gela



> La Factoria Choreographic Center zentroarekin lankidetzan egingen den bitartekaritza proiektua, dantzan esperientziarik ez duen publikoa dantzara hurbiltzeko.

> Programaren koordinatzaileak: Diego Pazó, Lucía Burguete eta Martín Los Arcos, LUR Egoitzak.

> Dantza garaikidean interesa duten gazte eta helduentzako jarduerak.

Askotan, ulertzen ez duguna ez dugu atsegin. Zerbaitekin bete-betean gozatzeko, beharrezkoa da esperimenez konektatzeko, eta, horretarako, arreta non jarri jakin beharra dago. Nola begiratzen zaio dantzari? Zenbat modu daude? Non bilatu behar da (edo biltzeari utzi) edertasuna, emozioa edo harridura?

Topaketa hauetan, dantza lan laburrak aztertuko dira, eta publikoak bere zalantzak, desadostasunak edo lilura adierazi ahal izanen ditu. Dantza garaikideari, haren historiari eta joera batzuei buruzko azalpen labur bat eskainiko da. Performance laburren bideoak proiektatuko dira, eta horiei buruz hitz egingen da publikoarekin. Zuzeneko lan bat irakurtzeko hainbat modu irakatsiko dira, eta erakutsiko da ez dela beharrezkoa ikusten ari garena sakontasunez ezagutzea, baina zenbait tresnarekin eta intuizio apur batekin errazagoa dela dantzaren moduko hizkuntza arras eklektiko eta abstraktu batez gozatzeko. Hori guztia osatzeko, “zuzeneko entsegu” batzuk egingen dira, dantzaria sortzeko nondik abiatzen den erakusteko.

- > Propuestas para compartir el conocimiento
- > El reto del consumo responsable



#LabCIVICAN

Nafarroako Kutxa Fundazioak #LabCIVICAN sustatzen du, Iruñeko kultura zentroko zerbitzu berri bat, pentsamendua eta kultura partekatua garatzeko gatazken ebazpenean.

Elkartzeko eta lankidetzan aritzeko espazio ireki bat da, eta bertan hainbat pertsonak elkarrekin lan egiten dute, gaur egungo arazo sozial eta kulturei erantzun espezifikoak emanen dizkieten proposamenak garatzeko.

#LabCIVICAN komunitateko kide izan nahi duten pertsona guztiek mezu elektronikoa idatz dezakete informacioncivican@fundacioncajanavarra.es helbidera, bertan adierazita beren datu pertsonalak eta harremanetarako datuak, adina eta izena emateko arrazoiak. Era berean, Nafarroako Kutxa Fundazioa Lineara deituta (948 222 444) edo CIVICANera hurbilduta ere eman daiteke izena.

Programaren koordinatzailea: Javier Espinosa, gizarte-aholkularia.

LABORATEGIAK

Propuestas para compartir el conocimiento

Martxoak 1 eta 8, astelehenak, eta martxoak 5 eta 12, ostiralak, 11:00-13:00. 4. gela

> Adineaz nagusientzako jarduerak. Parte hartzeko gogoak eta sormena dituzten pertsona dinamikoak, ikusmen espazial handikoak, era askotako profilak eta esperientziak dituztenak eta aldaketa sozialari begira interesa dutenak.

Eskarmentua bada zerbait. Adinean aurrera egin ahala, ezagutzak, jakinduria eta esperientzia oso baliotsuak pilatzen ditugu. Beharrezkoa da esperientziak trukatzeko eta elkarrengandik ikasteko loturak eta konexioak sortzea, pertsonalki nahiz kolektiboki aberasteko.

LABORATEGIAK

El reto del consumo responsable

Apirilak 22, asteazkena, eta apirilak 23, osteguna, 18:00-20:30. 4. gela

> Adineaz nagusientzako jarduerak. Parte hartzeko gogoak eta sormena dituzten pertsona dinamikoak, ikusmen espazial handikoak, era askotako profilak eta esperientziak dituztenak eta aldaketa sozialari begira interesa dutenak.

Elikagaiak ezinbesteko indarra dira gure familia, kultura eta komunitateentzat. Hala ere, horiek ekoitzi, prestatu, banatu, kontsumitu eta xahutzeko modua ikaragarri aldatu da azken hamarkadetan, eta aldaketa horren ondorioz gero eta arrisku larriagoan daude elikaduraren jasangarritasuna, ekitatea eta segurtasuna etorkizunean.

- 
- > Comunidades
en red
- > Contextos

ELKARTASUNA

COMUNIDADES EN RED

Pandemiak ekarritako isolamenduak eta ondorioek bizikidetza modu berriak planteatzen dituzte. Programa honen helburua da auzo komunitateko kideen arteko bizikidetza hobetzen laguntzea, elkartasuna eta elkarlana indartuko dituzten ekintzen bitartez.



KAPSULA

Activos desde la inactividad

Martxoaren 15etik aurrera ikusgai hemen:
www.fundacioncajanavarra.es

> Elisa Rubioren: Osasun Zientzietan espezialista eta CIVICANeko osasun eta ongizate ikastaroetako irakaslea.

Atsedean egokiarekin eta elikadura onarekin batera, jarduera fisikoa erregularatasunez egitea oso lagungarria izan daiteke gure bizi kalitatea hobetzeko eta funtzionalki independenteak izateko.

Gainera, onura ukaezinak dakartzkigu: autoestimua areagotzea eta bizitasuna sendotzea. Lehen kapsula honetan, etxeko aulki batean egin daitezkeen ariketa errazak proposatzen ditugu, helburutzat dutenak lokarriak lotzea, orraztea eta eguneroko beste ekintza batzuk indartu eta leheneratzea.

KAPSULA

Independientes y vitales

Martxoaren 12tik aurrera ikusgai hemen:
www.fundacioncajanavarra.es

> Elisa Rubioren: Osasun Zientzietan espezialista eta CIVICANeko osasun eta ongizate ikastaroetako irakaslea.

Fisioterapia prebentiboaren oinarria da eroriko batek eragindako hausturak sendatzea baino hobe dela erorikoa prebenitzea: ohitura osasungarriek eta gorputz jarrera zuzenek istripu bat izateko aukerak murrizten dituzte.

Zutik edo paretaren aurka eta guztiok etxean aurki ditzakegun objektuak erabiliz eginen ditugun ariketa erraz hauekin, erresistentzia (aerobikoa) eta indarra (erresistentzia) landuko ditugu, baita malgutasuna, koordinazioa eta oreka ere, funtsezkoak direnak gure gorputza kontrolatzeko.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

ELKARTASUNA

CONTEXTOS

Programa honetan, Nafarroako Kutxa Fundazioak, arlo sozial eta kultureko hainbat aditu eta ikertzaileekin lankidetzan, pandemiaren osteko errealitatea aztertu nahi du, norbanako gisa eta norbere erantzukizunetik mundu global eta konplexu honetan gainditu beharko ditugun arazo nagusiak identifikatzeko.



TOPAKETA

Viejos conocidos, nuevos retos

Martxoak 31, asteazkena, 19:00.
Auditoriuma

> Marta Mañerurekin (garapenerako lankidetzako teknikaria eta Finantza Ekonomiako irakasle elkartua NUPen) eta Ion Martínez Lorearekin (Soziologian doktorea, NUPeko Soziologia eta Gizarte Laneko Saileko irakaslea, eta erakunde bereko I- Communitas institutuko ikertzailea).

Kapitala, ezagutza eta teknologia eskuratzeko aukeretan dagoen desberdinkeria desparekotasun soziala dakar aspalditik, baina pandemiaren ondorioz izugarri ugartu dira desberdinkeria hori areagotzen duten arrazoiak. Espazio publikoa, informazioaren eskuragarritasuna, txertoak, pribatizazioa, zer eginkizun dugu horretan gizarte gisa? Eta norbanako gisa, zer egin dezakegu desparekotasuna arintzeko?

IKASTAROA

Pandemia de la desigualdad, el gran desafío

Apirilak 21 eta 28, asteazkenak,
18:30-20:30. 1. gela
Izen ematea: 14€

> Elkartasunean eta berrikuntza sozialean interesa duten pertsonentzat.

> Irakaslea: Marta Mañeru, garapenerako lankidetzako teknikaria eta Finantza Ekonomiako irakasle elkartua Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

> 2 orduko 2 saio [4h]

Desberdinkeria globala errealitate latente bat da aspalditik, eta Covid-19aren pandemia gure bizitzetan agertu denetik egoera hori agerikoagoa da gure eguneroko errealitatean. Lehenengo saioan, desberdinkeria zer den eta zerk eragiten duen aztertuko dugu, eta bigarrenean, gure eguneroko ekintza txikiekin desberdinkeria murrizten lagun dezakegula ikusiko dugu.



2021eko martxo-apirileko jarduerak

ELKARTASUNA



HITZALDIA

Cómo afrontar la posguerra social del Covid



**Apirilak 22, osteguna, 19:00.
Auditoriuma**

✦ Ignacio Lopez-Goñirekin:
Mikrobiologiako katedraduna Nafarroako
Unibertsitatean.

Pandemiaren ostean, barneratutako
ikuspegi berriarekin, berrikusi egin behar
dugu zer eginkizun duten elkartasunak
eta lankidetzak, baita guk geuk ere,
gizarte gisa.

Lopez-Goñiren hitzetan: "Krisi honetatik
aterako bagara, guztien ongiaren alde lan
egin beharko dugu maila guztietan, bai
industria farmazeutikoak, ikertzaileek eta
medikuek, baita herritarrok ere; denok
batera aurrera eginez bakarrik lortuko
dugu garaipena".

- 
- A man and a woman are standing in a field, facing each other with their arms extended horizontally, palms facing each other. The man is on the left, wearing a light-colored long-sleeved shirt and dark trousers. The woman is on the right, wearing a dark floral dress and dark trousers. In the background, there is a large, abstract sculpture made of stone or concrete, featuring various figures and shapes. The entire scene is bathed in a warm, orange-red light, suggesting a sunset or sunrise. The overall mood is artistic and contemplative.
- > Perspectivas
 - > Aula del pensamiento
 - > En clave de #F
 - > HuELLAS en femenino
 - > XI Certamen de
diseño Imagina
CIVICAN
 - > Ikastaroak

KULTURA

PERSPECTIVAS

Pentsamendurako eta eztabaidarako espazio bat, non arlo zientifiko, sozial eta kulturalako hainbat protagonistak publikoarekin partekatuko dituzten etorkizuneko gizarreak izango dituen erronka nagusiak.



HITZALDIA

La búsqueda de lo humano en la era de los algoritmos

Martxoak 24, asteazkena, 19:00. Auditoriuma



> Hizlaria: Marta García Aller, kazetaria, idazlea eta IE Business School eta ICADE erakundeetako irakasle elkartua. *El Confidencial* egunkarian idazten du, Onda Cero irrati katean eta La Sexta telebista katean kolaboratzailea da eta kazetaritza ekonomikoaren arloko sari esanguratsuenetako batzuk jaso ditu. *El fin del mundo tal y como lo conocemos* (Planeta, 2017) eta *Lo Imprevisible* (Planeta, 2020) liburuak idatzi ditu, besteak beste.

Zergatik ezin izan zuten algoritmoek mundu mailako pandemia handiena aurreikusi? Zer neurritan du zerikusia ziurgabetasunak aldaketa teknologikoekin? Nola molda gaitezke horietara? Inguruan dugunetik zenbat izango da ezin aurreikusizkoa?

Maitasuna, osasuna, egia, umorea, gezurrak, ergeltasuna... Dena aldatzen ari da konektatuta dagoen mundu honetan. Marta García Allerrek etorkizunera bidaiatuko du, algoritmoen aroan alderdi gizatiarra bilatzera. Algoritmoen bidez eguraldia aurreikus daiteke, eta auto ilarak, baita maitasuna ere. Batzuek musika konposatu eta margolanak sortzen dituzte. Beste batzuek berri faltsuak sortzen dituzte, eta beste batzuek botoa nori emango diogun iragartzen dute. Makinei boterea ematen diegun neurrian, are gehiago kezkatzen gaitu haien kontrolpetik at geratzen denak.

HITZALDIA

El reto de la investigación de enfermedades por envejecimiento

Apirilak 16, ostirala, 19:00. Auditoriuma

> Hizlaria: María Blasco, biologo molekularra, Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionalako (CNIO) zuzendari zientifikoa eta CNIOko Telomero eta Telomerasen taldeko burua. Nazio-ko nahiz nazioarteko sari entzutetsuak jaso ditu bere lorpenengatik.

Zenbait aldizkari zientifikoren editorea izan da, eta zenbait Aholkularitza Kontseilu Zientifikotako kidea, bai Espainian, bai atzerrian. Julio Pérez Díazekin batera Envejecimiento (CSIC, 2011) idatzi du, eta Mónica G. Salomonerekin batera, *Morir joven a los 140* (Paidós, 2016).

Ezinbestean zahartu behar dugu? Gero eta zientzialari gehiagok esaten dute zahartzeari aurre egin dakiokela eta aurre egin behar zaiola: gaztaroa luzatzea izan liteke minbizia, alzheimerra eta adinari lotutako gaitzak saihesteko bidea.

María Blascok azalduko du zelulak honda ez daitezen haiek babestea lortzen duten mekanismoek zahartzeari aurre egiteko babesa eskaintzen dutela eta, hortaz, zahartzearekin lotutako zenbait gaitzei begirako babesa.



AULA DEL PENSAMIENTO

Espazio honetan, pentsalariek zenbait kontzeptu klasiko definitzen dituzte pentsamenduaren historiaren bitartez, gaur egungo mundua azaltzeko.



HITZALDIA

Libertad

Apirilak 21,

asteazkena,

19:00.

Auditoriuma

> Hizlaria: Belén Al-tuna, Filosofia Moraleko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Aurkezlea eta moderatzailea:

Aitor Alzola Molina, ANAFIE- Nafarroako Filosofia Elkarteko kidea.

Une honetan, guztien ongiaren mesedetan gure askatasunari uko egin diogunean, edo teknologia berriek askatasun hori mehatxatu eta aldi berean sustatzen dutenean, beharrezkoa da filosofiaren historian zehar askatasun kontzeptuari buruz izan diren interpretazioen gainean eta gaur egun askatasuntzat jotzen denaren gainean eztabaidatzea.



EN CLAVE DE #F

Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta Baluarte Fundazioaren lankidetzari esker, kontzertu didaktikoen ziklo bat eskain diezaiokegu Nafarroako publikoari, Nafarroako Orkestra Sinfonikoko instrumentisten talde txikiez goatzeko eta ganberako musikaren berezko intimitatea lantzeko. Gainera, NOSren denboraldiko kontzertuak ere badatoz, entzunaldi iruzkinduekin eta artistekiko topaketekin.



ENTZUNALDI GIDATUAK

Ciclo 7/OSN. Poetas de lo esencial

Martxoak 10, asteazkena, 19:30. Auditoriuma

> María Setuáin Belzuneguiarekin, bitartekaritza musikaleko irakasle espezialista.

Beti aurrean zutela tradizioaren horizontea, Dukasek eta Brahmsk erabilitako hizkuntzan ezaugarri ziren berritasuna, emozio neurritsua, kontrapuntu soilak zein arkitektura perfektuak eta ahots nahiz orkestra gardentasunak, bizitzaren iheskortasunari edo heriotzaren iluntasunari abesteko.

Programa:

Johannes Brahms (1833-1897), Obertura tragikoa op. 81.
Begräbnisgesang op. 13. Nānie op. 82.

Iruñeko Orfeoia. Zuzendaria: Igor Ijuria.

Paul Dukas (1865-1935), Do Maiorreko Sinfonia. Nafarroako Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Perry So

KONTZERTUA

Concierto de Cámara N° 4. Compositoras en la historia de la música

**Martxoak 17, asteazkena,
19:30. Auditoriuma**

> M.M. Grimani, F. Hensel
Mendelssohn, T. Catalán eta
B. Arzamendiren lanak.

Interpreteak: Anna Radomska, biolina; Cristian Ifrim, biolina; Jerzy Wojtyśiak, biola; David Johnstone, biolontxelo.



KONTZERTUA

Concierto de Cámara N° 5. La precocidad de un geni

Apirilak 7, asteazkena, 19:30. Auditoriuma

> S. Rachmaninoff eta F. Mendelssohnen lanak.

Interpreteak: Nikola Takov, biolina; Grazyna Romanczuk, biolina; Malen Aranzabal, biolina; Catalina García-Mina, biolina; Robert Pajewski, biola; Javier Gómez-Vivancos, biola; Dorota Pukownik, biolontxelo; Lara Vidal, biolontxelo.

ENTZUNALDI GIDATUAK

Ciclo 9/OSN. Viaje interior

Apirilak 14, asteazkena, 19:30. Auditoriuma

> María Setuáin Belzuneguiarekin, bitartekaritza musikaleko irakasle espezialista.

Adiskideak eta bidelagunak, Mendelssohnek eta Schumannek nork bere bidea egin zuen zoriontasunaren bila. Mendelssohnek Italiako paisaia bero eta lurrintsua arakatu zuen, gaztetako bizipen bat, bere unibertso sinfoniko apartan. Schumann bere barne amildegian murgildu zen, Clara lagun zuela beti, eta erreperitorio kontzertantearen gailurrera iritsi zen. Johannes Moserren biolontxeloan berpizten da gailur hori.

Programa:

Robert Schumann (1810-1856), Genoveva op. 81, obertura. Biolontxelorako kontzertua La Menorren, op. 129.

Johannes Moser, biolontxelo

Felix Mendelssohn (1809-1847), 4. sinfonia La Maiorren, op. 90 "Italiarra".

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Manuel Hernández-Silva

HUELLAS EN FEMENINO

Uharte Zentroarekin lankidetzan antolatutako programa, helburutzat duena emakumeek kulturaren arlo desberdinetan garatzen duten lana ezagutzera ematea, arreta berezia eskainita Nafarroan bizi diren eta lan egiten duten emakumeei.

EXPOSICIÓN

En la roca turquesa el papo

Del 5 al 18 de marzo.
Vestíbulo



PERFORMANCEA

En la roca turquesa el papo

Martxoak 5, ostirala, 19:00. Ataria

> Eskultura eta ahots performancea Elena Aitzkoarekin

Hutsuneetan txistu egin, aireak lurraldea birrindu dezan, eta biluzi. Airean egin txistu, aireak mihi bikoitzez Itsasoko bideak ditzan txistukatu. Txistu jo mihian. Lo egin mihian. Oxigenoa. Txingarra. Likena. Lahar Horia. Gaua ilargian. Ilargian musu eman. Gauean hutsuneak. Abestu. Barnean bizi dena jaioarazi esku hutsekin jaio hutsuneetan txistu egin. Abestu. Poema. Abestu. Hutsuneetan igeri egin. Eta arrokan etzanda airean murgilean egin, birrintzen duena, ikuzten duena izpilikua belatxeta soroa entzumen, belarria, sudurra, ahoa, besoak. Arroka turkesan kokospea.

Elena Aitzkoa eskultorea eta poeta da, baina bere jardunak barne hartzen ditu pintura, marrazketa, performancea eta filmen zuzendaritza. Haren eskulturetan naturaren bizi prozesuekin lotutako jardun artistikoa antzematen da, eta horiek konfiguratzeko dute aldaketa etengabeko eta iraunkortasuneko idiosinkrasian. Objektu eta materialen elkarketak dira, eta sartuz, inguratuz, lotuz, metatuz, dekantatuz eta bermatuz sortutako erlazioak nabarmentzen dira, metaforikotzat jo baitaitezke.

KAPSULA

Femmes

Martxoaren 5etik aurrera ikusgai hemen:

www.fundacioncajanavarra.es

> Txaro Fontalba, Beruta, Maddi Saray, Irene Holguin eta Tefi de Pazekin.

Bost emakume artistak beren lanak aurkeztuko dizkigute, baita beren formakuntza eta influentziak ere. Emakumeek gaur egun artean duten eginkizunaz hitz egingen digute, edo emakume izateagatik beren ogibidean gaingiditu behar izan dituzten zailtasunei buruz. Hala, ezagutzera emanen dute beraiek Nafarroako arte garaikidearen barruan gauzatzeko ari diren lana, baita beraien ibilbide profesionala ere, ibilbide sendoa, zenbait kasuan, eta hasiberria, aldiz, beste batzuenan.



XI CERTAMEN DE DISEÑO IMAGINA CIVICAN

Nafarroako Kutxa Fundazioak 'Imagina CIVICAN' diseinu grafikoko lehiaketaren 11. edizioaren deialdia egin du, 2021erako eraikinaren kanpoaldeko olanaren irudia aukeratzeko.

BISITA GIDATUAK

Diseinatzeko ezagutu

**Martxoak 2, asteartea,
12:00- 13:00**
**Martxoak 3, asteazkena,
18:00- 19:00**

> CIVICANeko eremuetatik bisita gidatua, Nafarroako Kutxa Fundazioaren kultura zentroaren zirrikituak ezagutzeko eta informazioa emateko lehiaketan parte hartu nahi duten pertsonen.

KAPSULA

Diseinu finalistak

**Martxoak 22 astelehenetik
aurrera ikusgai hemen:
www.fundacioncajanavarra.es**

> 'Imagina CIVICAN' lehiaketaren XI. edizioko diseinu finalistak biltzen dituen bideoa.



BOZKETA

Publikoaren saria

**Martxoak 22 astelehenetik
martxoak 25 ostegunera**

> Lan finalisten aurkezpena eta Publikoaren saria jasoko duen diseinua aukeratzeko botoa emateko epea.

SARI BANAKETA

Imagina CIVICAN

Martxoak 31, asteartea, 12:00. Ataria

> Lehiaketako sariak banatuko dira, eta diseinu irabazlearen irudia daraman olana zabalduko da zentroaren fatxadan.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

KULTURA

IKASTAROAK

CIVICANen ikastaroen proposamenak helburutzat du elkartzeko eta ikasteko foroak eskaintzea, bertan ideiak eta ezagutzak partekatzeko, bai alderdi teorikoan, bai alderdi praktikoan.

La voz en la mezcla musical

**Martxoak 26, ostirala,
16:30-20:30. 3. gela
Izen ematea: 35€**

- > Musika sorkuntzan interesa eta musika ekoizpenean oinarritzko ezagutzak dituzten gazte eta helduentzat.
- > Irakaslea: Hans Kruger (Montreal Studios).
- > 4 orduko saio bat [4h].

Abesti batean ahotsa sartzean, ahotsak % 90eko pisua du nahasketan. Ikastaro honen helburua da estiloa pop, rock eta elektroniko gisa analizatzeko gaitasuna areagotzea eta tresna gehiago ematea, bai gutxienekoak (aditza, garbitasuna eta afinazioa), bai gehienekoak (ahots bikoiztuak, koroak, pista bikoiztuak, reverb, delay...).

Hasteko, ahots grabaketa konbentzional baten oinarritzko kontzeptuak berrikusiko dira, kontuan hartuta mikrofonoak, aurretikoak eta beste alderdi batzuk, eta ondoren nahasketa batean nola optimizatu ikasiko da, zenbait parametrotan arreta jarrita (ahots beroketa, grabatzeko modua, ahots desberdinak, sortze prozesua, genero desberdinen analisia...)

Pensamiento crítico

**Ostegunetan, martxoaren 11tik
apirilaren 29ra, 19:00-20:30. 3. gela
Izen ematea: 42€**

- > Nazioarteko gaurkotasunean interesa duten gazte eta helduentzat.
- > Irakaslea: Jorge Urdániz, Zuzenbidearen Filosofia eta Filosofia Moral eta Politikoko irakaslea NUPen eta Politika Zientzietako irakaslea UNEDen.
- > 1h 30m-ko 6 saio [9h].

Gertaerak, arrazoibideak, Fakenews-ak, emozioak eta adimenaren beste osagai batzuk...

Nola jakin dezakegu gaur egun zer esan nahi duen egiak? Zer da pentsamendu kritikoa? Irakats daiteke?

Ikastaro honek galdera horietara hurbildu nahi ditu parte hartzaileak, pentsamendu filosofikoaren historiaren bitartez, hau da, naturak sortutako animalia bikainenak egiten gaituen gaitasunaren historiaren bitartez: adimena eta horren aukerak. Hizkuntzaren eta kognizioaren jatorritik hasi, eta gaur egunera arte iritsiko gara.

Zer da pentsatzea? Zer da kritikoki pentsatzea?

2021eko martxo-apirileko jarduerak

KULTURA

 IKASTAROAK

La Guerra Civil Americana

**Astelehenetan, apirilaren 12tik
26ra, 17:30-19:00. Auditoriuma
Izen ematea: 28€**

- > Historian interesa duten gazte eta helduentzat.
- > Irakaslea: Jaime Aznar, historialaria.
- > 1h 30m-ko 3 saio [4h 30m].

Superpotentzia bihurtu aurretik, Ameriketako Estatu Batuetan gerra zibil bat izan zuten, munduko lehen iraultza liberala suntsitzeko zorian egon zena. Metodo beldurgarri bezain berritzaileak erabili zituzten gatazka batean konpondu behar izan zituzten nazioak jaiotzetik zeuzkan kontraesanak.

Zer ideiak bultzatzen zituzten borroka iparraldeko eta hegoaldeko armadak? Izan al zen gerraren bilakaera aldatzeko aukerarik?

Zer eragin izan zuen teknologiaren erabilerak? Gai horiei eta beste batzuei buruz hitz egingen da ikastaroan.



Expediciones musicales


Martxoaren 15etik apirilaren 23ra. Online ikastaroa. Izen ematea: 45€

- > Musikan eta historian interesa duten gazte eta helduentzat.
- > Irakaslea: Andrea Aisa, REDO Espazioa.
- > [10h].

Soinuen memoria eta memoria musikal erabiliz, ahanzturatik aterako dugu historian alde batera utzitako komunitate eta gatazken legatu kulturala. Horretarako, ikastaroan zehar formakuntzazko multimedia espedizioak proposatuko dira, altxor musikal ahaztuak, isilduak edo memoria kolektibotik ezabatuak bilatzeko.

Musika genero jakin bat ikertuko da, azaleratzen ari den mugimendu azpikultural bat edo ahanzturan kateatuta gelditu dena. Zer testuinguru soziale-takoa den argitu, estereotipoak desagin eta aldarrikapenak ezagutara-ziko dira.

Helburua munduko azpikulturen bi-hotzean gordetako altxorrak aurkitu, partekatu eta zabaltzea da, eta altxor kultural horiek ezagutzeko bidaia eginen da horretarako.



Mirada, voz y estilo en la creación de una novela

**Astelehenetan, martxoaren 8tik
29ra, 19:00-20:00. Online
ikastaroa
Izen ematea: 30€**

- > Literaturan eta literatur sorkuntzan interesa duten gazte eta helduentzat.
- > Irakaslea: Carlos Bassas, idazlea eta Komunikazio Publikoan doktorea.
- > 1h-ko 4 saio [4h].

Idazle askok eta askok bi oinarri garrantzitsuren gainean eraikitzen dituzte eleberriak: trama eta pertsonaiak. Baina badira horiek bezain garrantzitsuak diren beste ageriko (edo ezkutuko) osagai batzuk, hala nola begirada, ahotsa eta estiloa. Definitzen, neurtzen eta baloratzen zailak dira, baina horiek ezartzen dute, neurri handi batean, testu batzuen eta beste arteko aldea.

Lau saioetan zehar, horiek ezagutzen eta testu baten funtsezko elementu gisa balioesten ikasiko dute parte hartzaileek, baita beren idatzietan alderi horiek lantzen eta indartzen ere. Ikastaroa online egingen da, zuzeneko bideokonferentzien bitartez; grabatu ere egingen dira, ondoren kontsultatu ahal izateko.

- 
- > Jakin Mina 2020-2021
Nafarroan
- > Ikastaroak
- > Elkarrizketa taldeak

HEZKUNTZA

JAKIN-MINA 2020-2021 NAFARROAN

Nafarroako ikastetxeetarako hitzaldi zikloa DBH4ko ikasleentzat, Jakiunde – Zientzia, Arte eta Letren Akademiarekin lankidetzan antolatua.

Nahi duenak parte har dezake, aurrez izena emanda helbide elektronikoaren bidez (akademia@jakiunde.eus)



HITZALDIA

The visions of the future... from the past!

Martxoak 12, ostirala, 17:30.
Auditoriuma

> Hizlaria: Mar Rubio, Ekonomian doktorea, NUPeko Ekonomia Saileko zuzendariordea, INARBEko ikertzailea (Institute for Advanced Research in Business and Economics).

Jarduera ingelesez izanen da.

Nolakoa izanen da mundua 50 edo 100 urte barru? Historian zehar, gizarte gehienak galdera horri erantzuten saiatu dira, baina beti ez dituzte emaitza zuzenak lortu. Hitzaldi honetan, duela hainbat mende etorkizunari buruz aurkeztutako iragarpen batzuk aztertu, eta gaur egun planteatzen diren aurreikuspen batzuekin erlazionatuko dira.

Parte hartzaileek ikusiko dute iraganean etorkizunari buruz egindako iragarpen gehienek aurreikuspen alarmitzenetan huts egin zutela, ez zituztelako kontuan hartu aldagai garrantzitsuak, aldaketa teknologikoa eta giza asmamena, besteak beste.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

HEZKUNTZA

IKASTAROKAK

CIVICANeko ikastaroen proposamenak helburutzat du elkartzeko eta ikasteko foroak eskaintzea.



IKASTAROA

Visual Thinking: dibujando el pensamiento

Asteazkenetan, martxoaren 3tik 24ra, 18:30-20:30.

1. gela

Izen ematea: 51€

- > Gazte eta helduentzat.
- > Mercedes Corretge, bideratzailea eta dokumentatzaile grafikoa.
- > 2 h-ko 4 saio [8 h]

Pentsamendu bisuala marrazki sinple eta ezaguterraz bidez gure ideiak modu arin eta errazean adierazteko aukera ematen digun tresna bat da.

Tailer honetan, komunikatzeko eta pentsatzeko nola marraztu ikasiko dugu. Hitzaldi, eskola edo bilera bateko informazioa biltzen eta egituratzen lagunduko digu, helburutzat harturik hori hobeto ulertzea, helburuak zehaztea, arazoak identifikatzea, irtenbideak aurkitzea eta ideia berriak sortzea.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

HEZKUNTZA

IKASTAROAK ETA ELKARRIZKETA TALDEAK

Frantseseko elkarrizketa talde egonkorra

**Asteartetan, urriaren 6tik
ekainaren 15era, 19:00-21:00.
2. gela**

> Gazte eta helduentzat.

CIVICANek topaleku bat eskaintzen die elkarrekin frantsesez hitz egin nahi duten pertsonei.

Ingeleseko elkarrizketa talde egonkorra

**Asteazkenetan, urriaren 7tik
ekainaren 16ra, 19:00-21:00.
2. gela**

> Gazte eta helduentzat.

CIVICANek topaleku bat eskaintzen die elkarrekin ingelesez hitz egin nahi duten pertsonei.

Euskarako elkarrizketa talde egonkorra

**Ostegunetan, urriaren 8tik
ekainaren 17ra, 19:00-21:00.
2. gela**

> Gazte eta helduentzat.

CIVICANek topaleku bat eskaintzen die elkarrekin euskaraz hitz egin nahi duten pertsonei.



- > Mi primera vez
- > ArtLAB
- > (Re)Pensar la ciudad que habito
- > La hora del cuento



FAMILIAK

MI PRIMERA VEZ

Nafarroako Kutxa Fundazioak haurrentzako proposamen eszenikoak eta murgiltze esperientziak eskaintzen ditu, 6 hilabetetik gorako haurrak dituzten familientzako sormen espazio batean.

ESPERIENTZIA

Bú

**Apirilak 23, ostirala, 17:30ean
eta 18:30ean.
3. gela**

> Txotxongilo antzezlan bat, Bámbola Teatro konpainiaren eskutik, 6 hilabetetik 4 urtera bitarteko haurrak dituzten familientzat.

Lehen aldiz entzutea baleen kantuak eta izurdeen soinuak, koloretako arrain bitxiak artean igeri egitea eta bihotzaren taupada sentitzea.

Bu... lanean baleen kantuarekin eta izurdeen hizkuntzarekin jolastu da. Ozeano zati bat da, pixkana-pixkana agertuz doana bertan murgilduta amaitu arte.



2021eko martxo-apirileko jarduerak

FAMILIAK



MI PRIMERA VEZ

IKASTAROA

Criando en armonía

Asteazkenetan, martxoaren 10etik 31ra, 10:30-12:00. 3. gela
Izen ematea: 71€

- > 0-12 hilabeteko haurtxoak dituzten familientzat.
- > Irakaslea: Sandra Azcona, musikoterapeuta.
- > 1,5 h-ko 4 saio [6 h].

Ikastaro hau seme-alaben lehen 12 hilabeteetan elkartzeko eta babesa jasotzeko espazio bat da. Sormenezko proposamen musikalen bitartez, auto-zaintzarako espazio bat sortuko da gurasoentzat.

Gainera, musika proposamenek haurtxoen eta gurasoen arteko zubi gisa balioko dute, eta jolaserako, konplizitaterako eta intimitaterako uneak sortuko dira, familia lotura indartuko dutenak.

IKASTAROA

La magia de las texturas

Apirilak 16 eta 30, ostiralak, 17:00-18:00. 3. gela
Izen ematea: 35€

- > 15-36 hilabeteko haurrak dituzten familientzat.
- > Irakaslea: Elena Eraso, arte hezitzailea.
- > 1 h-ko 2 saio [2 h].

Adierazpen plastikoa hezkuntza prozesuaren parte da haurtzaroan. Ukimenezko estimuluen eta estimulu bisualen bidez, gurasoen eta haurren arteko harremana sustatuko da, baita norbere buruarekiko harremana, bere gorputzarekiko eta bere sentsazioekikoa ere.

Hainbat testurarekin lan egingen da, hala nola hodeiekin edo oobleck-arekin.

ArtLAB

Nafarroako Kutxa Fundazioak sorkuntza artistikoa sustatu nahi du, eta hurrek ikuspegia zabaltzeko aukera emanen dieten esperientzia berriak biziko dituzte. Partaidetzan oinarritutako ekintza ludikoak, ezagutza berriak barnerratu eta jakin-mina sustatzeko.



IKASTAROA

Laboratorio de arte y creatividad

Astelehenetan, martxoaren 8tik apirilaren 19ra, 18:00-19:00.

1. gela

Izen ematea: 55€


- > 4-7 urteko haurrentzat.
- > Irakaslea: Elena Eraso, hezitzailea.
- > 1 h-ko 6 saio (6h).

Laborategi hau bi hizkuntzatan oinarritzen da: arakatzeko artea eta helburu bat duen arte kolaboratiboa. Teknika eta material artistiko desberdinak esploratzeko eta zentzumenak pizteko espazio bat da, eta bertan, irudimena eta sormena garatzen dira, eta garapen emozionala lantzen da.

Teknika artistiko desberdinen bidez oinarritzko kodeak erabiltzen ikasiko dute hurrek, eta artearen hizkuntza desberdinekin esperimentatuko dute (kolorea, bolumena, forma...). Era berean, material birziklatuen erabilera landuko dute, ikaskuntza sortze hizkuntzan txertatzeko.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

FAMILIAK



TAILERRA

Mi cámara y yo

**Martxoak 12, ostirala, 18:00-19:30.
3. gela**

> 6-11 urteko haurrentzat.

Irakaslea: Villar López Vallés, argazkilaria.

Argazkilaritza aurkikuntza eta sormen iturri da, eta arreta bideratzen eta irudiaren bidez sormena lantzen laguntzen digu.

Argiarekin, kolorearekin edo beste ikuspuntu batzuekin jolastuz, parte hartzaileen erretratuak eginen ditugu; gure buruaren eta besteen gaineko begirada berri bat ezagutzera eramanen gaituzten selfieak, autorretratuak eta erretratuak.

TAILERRA

Expresionarte

**Martxoak 26, ostirala, 18:00-19:30.
1. gela**

> 7-11 urteko haurrentzat.

Irakaslea: Beatriz Menéndez, ilustratzailea.

Marrazkiaren bitartez gure ipuin edo istorio bateko pertsonaien aurpegierak eta emozioak landuko ditugu.

Poza, beldurra, lotsa, tristura...

Mezua indartzeko, gorputz jarrerak eta kolore egokiak erabili ahal izanen dira.



(RE) PENSAR LA CIUDAD QUE HABITO

Nafarroako Kutxa Fundazioak hirian esku hartzeko laborategiak sustatzen ditu, eta horietan parte hartzaileek beren hiria (bir)ponentsatzen dute, ja-sangarriagoa izan dadin.



LABORATEGIA

Habitar galáctico: minifuturópolis

Apirilak 8, osteguna, 18:00-20:00.
Ataria

> 6-11 urteko haurrak dituzten bizikidetza taldeentzat.

Orekari Arkitektura Tailerrak koordinatutako jarduera.

Nolakoa izango da etorkizuneko hiria?

Urrutiko galaxietan biziko gara? Laborategi honetan etorkizuneko hirien kontzeptua landuko da.

Maketa eskalan, minimundu bat eraikiko da; eraikinek material jasangarriz egindako egitura izanen dute, eta hiri berriko biztanleak ere sortuko dira.

LABORATEGIA

Habitar galáctico: futurópolis

Apirilak 9, ostirala, 18:00-20:00.
Ataria

> 6-11 urteko haurrak dituzten bizikidetza taldeentzat.

Orekari Arkitektura Tailerrak koordinatutako jarduera.

Etorkizuneko hiriaren ideiatik abiatuta, 'geropolis' bat eraikiko dugu eskala naturalean, eta parte hartzaileak berak izanen dira protagonistak bertan.

Espazio bakoitza egurrezko egiturak eta mantak erabiliz eraikiko da, hainbat poliedrotan oinarrituta, eta babesleku desberdinak dituen hiri bat eraikiko dugu. Gero, bertan bizi izanen gara denbora tarte batez.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

FAMILIAK

LA HORA DEL CUENTO

4 urtetik gorako haurrentzako jarduera*. Astean behingo hitzordua liburuetako istorio eta pertsonaia erakargarrienekin. CIVICANeko haur liburutegiko liburuen artean oso hurbiletik entzuteko istorioak.

* Jarduera hau 4 urtetik gorako haurrentzat da. Haiekin datozen helduak eta 4 urtetik beherako haurrak liburutegiaren kanpoan geratuko dira saioa amaitu arte. Jarduerak iraun bitartean (18:00-19:00), liburutegiko langileak arduratuko dira hurrez. Liburutegiko gainerako ohiko zerbitzuak 19:00etan berrabiaraziko dira.

Abenturak ipuinak pontxarekin

Martxoak 10, asteazkena

> Jaione Urtasun narratzailearekin
Jarduera euskaraz izanen da.

Cuentos floripondios

Martxoak 24, asteazkena

> Virginia Senosiain narratzailearekin

Cuentos fabulosos

Apirilak 7, asteazkena

> Sergio de Andrés narratzailearekin, Haur eta Gazteentzako Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira


Fish's dreams

Apirilak 21, asteazkena

> Virginia Moriones narratzailearekin Jarduera ingelesez izanen da.

2021eko martxo-apirileko jarduerak
FAMILIAK



- 
- > Escaparate de lecturas
 - > Tertulias literarias
 - > Vecinos de letra - Letrakide
 - > Leer con los cinco sentidos
 - > Abril, el mes del libro
 - > De viva voz
 - > La biblioteca con las personas mayores
 - > #Biblioteca, #territoriojoven
 - > Conoce tu biblioteca
 - > Programa biblioteca - escuela

LIBURUTEGIA

ESCAPARATE DE LECTURAS

Liburutegiko erakusmahaietan era askotako iradokizunak daude, gaurkotasunaren bilakaeraren, bizitzaren erritmoaren edo urtaroen joanaren arabera irakurtzeko.

Udaberriak berekin ekarriko ditu ohiko literatur hitzorduak (martxoak 21, Poesiaren Eguna; apirilak 2, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna). Egun horiek gogoratzeko, liburutegiak zenbait liburu sorta eskaintzen ditu (poesia, argitaletxeen mundua eta fabulak). Amaitzeko, oporraldirako saga fantastikoen bilduma bat aurkezten da, bereziki gomendagarria gazteentzat.

Erakusleiho bakoitzeko liburuak dagokien irakurketa gidan bilduta daude, eta gidak liburutegiaren webgunean kontsulta daitezke:

www.bibliotecaspublicas.es/CIVICAN



2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA



Marzo entre versos

Martxoaren 1etik 31ra

Publiko ororentzat.

> Martxo poesia hila denez, liburutegiak ezagutzera emanen du poemen bilduma aberats eta ugari bat: emakume poetak, gazte poesia eta jende txikiarentzako poemak.

Fábulas fabulosas

Apirilaren 6tik 30era

Haurrentzat.

> Fabulek ibilbide luzea dute egina, eta haurrentzat genero erakargarrienetako bat izaten jarraitzen dute. Monterrosoren (1921) eta La Fontaineren (1621) urteurrenak direla eta, horien lanak eta beste fabulagile handi batzuenak ezagutuko ditugu.

Oficio de editor

Apirilaren 6tik 30era

Helduentzat.

> Editorearen lana ez da oso ezaguna, baina ezinbesteko eginkizuna bete du literatur sorkuntzaren historia luzean. Izenburu sorta honek zenbait editore erreal edo faltsuren bizitzan eta lanean jartzen du arreta.

Sagas fantásticas

Martxoaren 29tik apirilaren 30era

Gazteentzat.

> Azken hamarkadetan, literatura fantastikoak izaki mitologikoz eta bestelako aparteko izakiz betetako unibertso paralelo bat sortu du. Aukeraketa honetan sartuta daude genero ezagun horretako saga nagusietako batzuk.

TERTULIAS LITERARIAS

Liburutegiak sei irakurketa klub koordinatzen ditu: helduentzako lau, haurrentzako bat eta familientzako beste bat (haurtzaroko lehen urteetako irakurketak).

Irakurketa klubetako kide izan eta literatur solasaldietan parte hartzeko, izena eman behar da aldez aurretik.

Café con libros: Clásicos del siglo XX

Astearte, 18:00. 1. gela

> Genero guztietako literatura. Helduak.
Koordinatzailea: Villar Arellano

Joan den mendeko idazle nagusietako batzuk gogoratuko ditugu, beren inguruari begirada bereziz begiratzen jakin zuten klasiko berriak, jendea eta lekuak erretratatu zituztenak.

Martxoak 9: *Viajes con Charley en busca de Estados Unidos*, John Steinbeck

Apirilak 13: *Mi familia y otros animales*, Gerald Durrell



Ítaca

Astearte, 18:00. 1. gela

> Literatura historikoa eta bidaietako. Helduak. Koordinatzailea: Rebeca Erro
Martxoan, gutun bidezko gure azken bidaia eginen dugu Taylor Kressmannen *Paradero desconocido* lan txundigarriaren eskutik. Eta apirilean, Irlandara joanen gara, Esmeralda uhartearen orri azpimarragarrietako batzuk ezagutzeko. Ibilbide horren lehen etapa John Banvilleren *El mar* eleberri bikaina izanen da.

Martxoak 16: *Paradero desconocido*, Kressmann Taylor

Apirilak 27: *El mar*, John Banville



2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

TERTULIAS LITERARIAS

Liburuz liburu: Ispiluen isla ezberdinak

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Euskarazko literatur solasaldia. Helduak. Koordinatzailea: Ángel Erro

Stendhalek dio bidean zehar laguntzen digun ispilua dela nobela, argumentua gorabehera. Galdera da ispilu laua ala makotua den, alegia, errealitatearen irudi zintzo ala desitxuratua itzultzen digun. Umorez betetako adibide bana irakurriko dugu bi eleberrri hauekin.

Martxoak 23a: Kale estua, Josep Plá

Apirilak 20: Hiri hondakin solidoak, Jon Alonso

Mirador de cuentos: La selva en dos clásicos infantiles


Asteartea, 18:00. 1. gela

> Haur literaturari buruzko solasaldia. Helduak. Koordinatzaileak: Villar Arellano eta Sara Machuca

Haurrentzako klasikoaren barrenako gure ibilbidearekin jarraituko dugu, oihana oso modu desberdinean irudikatzen duten bi lanekin: Babar elefante txikiaren xalotasunarekin eta Quirogaren kontakizunetako natura basatiarekin. Literatura ulertzeko bi modu ia aurkakoak.

Martxoak 2: Historia de Babar, Jean de Brunhoff

Martxoak 30: Cuentos de la selva, Horacio Quiroga



2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

 TERTULIAS LITERARIAS

El viernes... TBO

Ostiraletan, martxoaren 5etik apirilaren 30era, 18:00. 1. gela

> Haurren komiki kluba, 9 urtetik aurrera. Koordinatzailea: Sara Machuca.

Gogoko al dituzu Asterix eta Tintin? Gustatuko al litzaizuke komikietako beste abenturazale handi batzuk ezagutzea? Hala bada, hemenxe duzu zure espazioa. Bineta arteko txoko bat, gure pertsonaia gogokoenei buruz hitz egin ahal izateko, iradokizunak partekatzeko eta izenburu berriak ezagutzeko.

Malacatú #EnCasa

> Haur txikienentzako (2017an jaioak) eta horien familientzako irakurketa kluba.

Liburutegiak sustatutako programa bat da, helburutzat duena txikienengan irakurzaletasuna piztea; istorioak, esperientziak, orrialdeak eta berriak partekatzeko talde bat; formula eta errima artean liburuak ezagutzeko klub bat: "Fi, fa, fu, malakatu!".

*Osasun egoera berezia tarteko, programa hau formatu birtualean eskainiko da epe mugagabeen.



VECINOS DE LETRA - LETRAKIDE

Literatur solasaldien programa. Topaketak liburutegian, apalen ondoan, gure inguruko idazleekin, iritziak eta proiektuak partekatzeko.

TOPAKETA

La barrera más bonita del mundo

Martxoak 11, osteguna, 19:30.

Liburutegia

Helduentzako jarduera.
Gonbidatua: Blanca Berjano,
Nafarroako Kutxa
Fundazioaren Gazteen
Poesiako I. Sariaren
irabazleetako bat.

> Uharte bat, espazio geografiko, pertsonal eta sinboliko bat aukeratu du poetak bere poemak kokatzeko paisaiatzat. Poema liburu ausarta da, erreferentzia ugariko hizkuntzan idatzia eta bertso aske, harmoniko eta aldakorretan egituratua. Gure zibilizazioko bidegabekeriaren aurka egiten duen lan bat da, mendebaldeko ereduaren salatzen duena eta feminismo amorratu baina itxaropentsu bat aldarrikatzen duena.

Nafarroako Kutxa Fundazioak saritu egin du lana Gazteen Poesiako Sariaren lehen edizioan, gaztelaniazko lanaren modalitatean. Idazleak poema hautatu batzuk aurkeztuko ditu.

Blanca Berjano (Madril, 1987) idazlea eta bidaiaria da, eta lizentzia eta masterra eginak ditu Filologia Klasikoan eta Gaztelaniaren Irakaskuntzan. *La barrera más bonita del mundo* lanaz gain, *Ratas en el alféizar* (Ménades, 2019) poema liburua ere argitaratu du, eta erredaktore gisa kolaboratu du Diagonal egunkari digitalean, Mosaico aldizkarian eta Pikara Magazine nahiz Mujeres en Lucha aldizkari feministetan.



TOPAKETA

**Poesia egitea xaflatxozko
soineko bat janztean
denean**

**Martxoak 18, osteguna, 19:30.
Liburutegia**

Helduentzako jarduera, Castillo
Suárez poetarekin.
Jarduera euskaraz izanen da.

> “Askotan iruditzen zait
xaflatxozko soineko bat
janztean bezalakoa dela
poesia idaztea. Sekula
jantziko ez genukeena,
baina deigarria egiten
zaiguna aldi berean.

Poesiari diogun beldur
hori nerabezaroan kendu
nuen nik, Mondadori
argitaletxeko poema-
liburuxkak irakurtzen
nituenean, eta deigarriak
zitzaizkidan esaldiak kopiatzen
nituenean.

Uste dut antzeko zerbait egiten
jarraitzen dudala: esaldiak, tokiak, berriak,
argazkiak, kantak... horiek guztiak hartu eta
xaflatxozko soinekoa janzten dut, inguruan
dudanaren kolorea hartzen duena.

Eta ez dit beldurrik ematen esaten badidate ez dutela ulertzen, baina barrenera
iristen zaiela nik idatzitako zerbait, eta ez dakite azaltzen oso ongi zergatik. Izan
ere, ni poesia irakurle amorratua naiz, eta gauza bera gertatzen zait”.

Castillo Suárez (Altsasu, 1976) Euskal Filologian lizentziaduna da, eta euskara
teknikari gisa lan egiten du Sakanako Mankomunitatean. Mugarri estaliak (Susa,
2000), Spam poemak (Elkar, 2004), Bala hutsak (Elkar, 2006), Souvenir (Elkar,
2008) eta Urtebetetze festa (Elkar, 2012) poema liburuak argitaratu ditu.



2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

VECINOS DE LETRA - LETRAKIDE

TOPAKETA

La editorial: ficciones y realidades

Apirilak 15, osteguna, 19:30.
Liburutegia

> Helduentzako jarduera, Toti Martínez de Lezea idazlearekin.

Liburuei eta argitaletxeei eskainitako hilabete honetan, liburuaren negozioa barrutik ezagutzen duen gonbidatu bat izanen dugu gurekin; haren azken lanean, *La editorial/Egurra S.A.* (Erein), bete-betean sartu da unibertso horretan, argitalpen enpresa boteretsu bat zuzentzen duen familia baten barne borrokak kontatzeko.

Eleberri horretatik, bertako pertsonaiak inguratzen dituzten azpizkoetatik eta idazleak berak sektorean izandako esperientziatik abiatuta, argitaletxeen munduaren hainbat alderdiri buruz hitz egingen du, fikzioak eta errealtateak kontrastatuz.

Toti Martínez de Lezeak (Vitoria-Gasteiz, 1949) 1998an argitaratu zuen bere lehen eleberria, *La calle de la judería*, eta orduz geroztik ez dio idazteari utzi, eta bere irakurleak harritzen jakin du. Ibilbide emankorrari esker, gure inguruko idazle irakurri, estimatu eta ezagunenetako bat da.



LEER CON LOS CINCO SENTIDOS

Liburutegiko ohiko funtzionamendua eteten duten proposamenak, orrialdeak irudiekin, soinuekin, usainekin, testurekin, zaporeekin... konbinatzen dituzten irakurketak. Literaturan murgiltzeko gonbidapen bat, beste hizkuntza eta gozamen batzuk ezagutzeko. Bazatuz gurekin?

POESIA ERREZITALDIA, ARGAZKILARITZA ETA DANTZA

El cuerpo secreto de la rosa

Martxoak 25, osteguna, 19:30.
Liburutegia

> Gazte eta helduentzako jarduera, Marina Aoz poetarekin eta Sury Belloso dantzariarekin.

"**Arrosaren gorputz sekretuaren** irudi lirikoa Gastón Baquero kubatar poetarena da. Duela urte batzuk erabat txunditu ninduen haren lanak, eta koaderno batean haren bertsoetako batzuk idatzi ostean, horietatik abiatuta poema liburu oso bat sortu nuen pare bat astean. María del Villar Berruezo artistak idatzi zuen dantza mugimenduan dagoen poesia dela.

Ama-alabak saiatzen gara **arrosaren gorputz sekretu** hori hitzen, formen, testuren eta usainen bidez ezagutarazten.

Gure konplizitatearekin "amets ikusgai" baten giroa sortzea eta zuekin batera liburutegiko liburuaren artean horretaz gozatzea lortzen badugu, gozamen partekatua izanen da".

Sury Belloso Aoz (Tafalla, 1999) zazpi urterekin hasi zen dantza ikasten Ana Iralarekin, Tafallan. Hamar urte zituela, 2010eko dantzari berri onenaren saria jaso zuen Madrilén, Dantza Ikasleen Elkartearen (Aeda) sarien estatuko deialdian. Almudena Lobónen eskolan jarraitu zuen prestatzen, Iruñean. Gaur egun, Arte Bisual eta Dantza ikasketen azken maila egiten ari da Juan Carlos Erregearen Unibertsitatean – "Alicia Alonso" Goi Mailako Dantza Institutuan, Madrilén.

Marina Aoz Monrealek (Tafalla, 1955) kazetaritza ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean, eta Gemologia Bartzelonako Unibertsitatean, besteak beste. Hamazazpi poesia liburu argitaratu ditu, eta horietako batzuk saritu egin dituzte lehiaketa nazionaletan. Europako eta Hego Amerikako hainbat herrialdetan argitaratutako hogeita hamar bat antologiatan parte hartu du. Haren lan poetiko eta narratiboko testu batzuk euskarara, frantsesera, ingelesera, alemanara, portuguesera, arabierara eta nahualtera itzuli dituzte.



2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

ABRIL, EL MES DEL LIBRO

Apirilean, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna (hilak 2) eta Liburuaren Nazioarteko Eguna (hilak 23) izaten dira. Hori ospatzeko, liburutegiak hainbat jarduera antolatu ditu.

HAUR LIBURUAREN EGUNARI LOTUTAKO JARDUERA BEREZIAK



OSPAKIZUNA

Día Internacional del Libro Infantil

Apirilak 6, asteartea, 18:00.
Haur Liburutegia

> Apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da, H. C. Andersen-en jaiotza egunaren (1805) omenez.

CIVICANEk bat egin nahi du omenaldiarekin, eta idazle handi hura gogoratu nahi du, argazki bidezko ibilbide bat eginez haren bizitzan eta lanetan barrena. Gainera, La Fontaineren eta Monterrosoren urteurrenen harira, fabularen generoa hobeto ezagutzea ere proposatzen da.



LEHIAKETA

Parejas de fabula

Apirilaren 6tik 16ra.
Haur Liburutegia

> Pazkoko oporretarako, liburutegiak fabula ezagunenetako batzuk ezagutzera, pertsonaia nagusien itxura irudikatzen eta bikoteka marraztera gonbidatu nahi ditu irakurle gazteenak, marrazkiekin galeria bat osatzeko.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA



AHOZKO NARRAZIOA

Cuentos fabulosos

Apirilak 7, asteazkena, 18:00.

Haur Liburutegia

> Sergio de Andrés narratzailearekin.
Ikusi 42. orrialdea.

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

Fábulas fabulosas

Apirilaren 6tik 30era.

Haur Liburutegia

> Ikusi 46. orrialdea.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

ABRIL, EL MES DEL LIBRO

LIBURUAREN EGUNARI LOTUTAKO JARDUERA BEREZIAK



**IRAKURKETA
ERAKUSLEIHOA**

Oficio de editor

**Apirilaren 6tik 30era.
Liburutegia**

> Helduentzat. Ikusi 46.
orrialdea.

**TOPAKETA
IDAZLEAREKIN**

La editorial: ficciones y realidades

**Apirilak 15,
osteguna, 19:30.
Liburutegia**

> Toti Martínez de
Lezearekin.
Helduentzat.
Ikusi 52. orrialdea.



DE VIVA VOZ



Irudia: Emma Chichester

DE VIVA VOZ

**Astelehenetan, martxoaren 1etik apirilaren 26ra,
18:00. Haur Liburutegia**

> 4 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera librea, edukiera bete arte.

Irakurketa sustatzeko programa, helburutzat duena haurrek testu onenak ezagutzea heldu baten ahotsean; hurbileko topaketa bat, non hitzak bizirik dauden eta liburu batek sor dezakeen erakargarritasun guztia erakusten duten.

Boluntario talde batek txandaka irakurtzen ditu testuak, liburutegiko taldearen aholkuei jarraituz: ipuinek eta poemek soinua jarriko diete liburutegiko astelehenei.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

#BIBLIOTECA, #TERRITORIOJOVEN

Bereziki nerabeentzat eta gazteentzat aurkeztutako proposamenak: topaketarako eta aisialdirako espazioak, irakurketari eta fikzioaren arlo ugariei lotuak.



KAPSULA

La Joko-tk: una selección de juegos

Martxoaren 26tik aurrera ikusgai hemen:
www.fundacioncajanavarra.es

> Diana Kharisen partaidetzarekin.

Liburutegiak bere bildumako mahai joko nabarmenenak aurkezten ditu; entrenitzeko proposamenen katalogo aberats bat, eskolako oportetean gozatzeko eta abileziak probatzeko: estrategia, zortea, argitasuna, abilezia, adierazkortasuna, irudimena... eta umore ona.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA



IRAKURKETA
ERAKUSLEIHOA

Buenos tiempos para la lírica. Poesía joven

**Martxoaren 1etik 31ra.
Liburutegia**

> Poesia sare sozialetan ageri da, eta kaleetan, baita ringetan ere! Testuinguru ireki horretan sortutako poema liburuen aukeraketa bat aurkezten dugu, garai onetarako poesia berria.

IRAKURKETA
ERAKUSLEIHOA

Sagas fantásticas

**Martxoaren 29tik apirilaren
30era. Liburutegia**

> Azken hamarkadetan, literatura fantastikoak izaki mitologikoz eta bestelako aparteko izakiz betetako unibertso paralelo bat sortu du. Aukeraketa honetan sartuta daude genero ezagun horretako saga nagusietako batzuk.

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

LA BIBLIOTECA CON LAS PERSONAS MAYORES

Donibane auzoko Adinekoen Aldeko Itunaren baitan, CIVICAN Liburutegiak, Yamaguchiko Liburutegi Publikoarekin batera, zenbait zerbitzu eskaintzen ditu, DYAk eta Cáritas Donibane elkarteak aukeratu eta prestatutako boluntarioen laguntzaz.

Mugikortasun arazoengatik edo konfinatuta daudelako liburutegira joaterik ez duten pertsona orori eskaintzen zaio zerbitzua.



ZERBITZU BEREZIA

Préstamo a domicilio

> Aldez aurretik telefonoz eskatutakoaren arabera aukeratutako liburuak, aldizkariak edo ikus-entzunezkoak bidaltzen dira.

ZERBITZU BEREZIA

Lecturas por teléfono

> Astean behin, boluntarioek telefonoz hots egiten diete izena emana dutenei, eta aldez aurretik adostutako testu mota bat irakurtzen diete (kontakizuna, poema, eleberri baten kapitulu bat, prentsa...).

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA



LA BIBLIOTECA CON LAS PERSONAS MAYORES

**PRESTAKUNTZA
JARDUERA**

Salta la brecha

**Ostiraletan, martxoaren 5etik
apirilaren 30era, 12:00- 14:00.
Liburutegia**

➤ 65 urtetik gorako
pertsontentzat. Koordinatzailea:
Diana K. Pindado.

Astean behingo espazio irekia
(ez da aurrez izena eman
behar)*, telefono mugikorrari,
tabletari edo ordenagailu
eramangarriari buruzko zalantzak
argitzeko eta oinarritzko erabilera
ikasteko. Oinarritzko mailan gailu
horiek autonomiaz erabili ahal
izatea da helburua.

**Jardueran parte hartu dezaketenen muga unean uneko araudiak ezarritako edukiera izanen da.*

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

PROGRAMA BIBLIOTECA-ESCUELA

Lankidetzarako bide bat, liburutegiaren baliabideak ezagutzera emateko eta haur zein gazteengan irakurtzeko ohitura sustatzeko.

Visitas escolares: la biblioteca, de cerca

> Hezkuntza ziklo guztietako ikasle talde txikientzat. Koordinatzaileak: Villar Arellano eta Lorena Gil.

Ezinbestekoa da aurretiko bilera hitzartzea, formatua eta egun libreak aztertzeko.

Jarduera honen helburua da liburutegiko baliabideak ezagutzera ematea eta bertako zerbitzuak nola funtzionatzen duten azaltzea. Jardueraren dinamika taldearen ezaugarrietara moldatzen da.

Jarduera hau antolatzeko kontuan hartzen dira indarrean dauden edukiera arauak; parte hartzeko eskaerei hurrenkera kronologikoaren eta egutegiko egun librean arabera erantzunen zaie.

Préstamo colectivo: lotes y maletas viajeras

> Liburutegiak zenbait liburu sorta ditu eskola taldeei baldintza berezietan mailegatzeko.

Bi sorta mota daude:

- **Izenburu baten 15-20 aleko sortak** (haur, gazte eta helduentzako lanen bilduma askotarikoa).

- **Hainbat adinetarako gaikako sortak** (genero edo gai jakin bati buruzko 20-30 laneko bildumak).

Visitas guiadas para docentes

Martxoak 16 eta apirilak 27, astearteak, 18:00. Liburutegia

> Hezkuntza ziklo guztietako irakasleentzat. Koordinatzailea: Villar Arellano.

Talde txikitan (4 edo 5 irakasle) egingen den topaketa, liburutegian erabilgarri dauden baliabideak, horiek erabiltzeko modua eta eskaintzen dituzten aukera didaktikoak ezagutzeko.

Servicio de Apoyo a la Biblioteca Escolar (SABE)

> Behar espezifikoaren arabera irakurketa interesgarriak aukeratzeko orientabidea.

Irakurzaletasuna sustatzeko edo liburuen mundura hurbiltzeko jarduerak martxan jartzeko aholkularitza.

Informazio gehiago gure webgunean: www.bibliotecaspublicas.es/civican/

2021eko martxo-apirileko jarduerak

LIBURUTEGIA

CONOCE TU BIBLIOTECA

Liburutegiak eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutzeko eta bertako baliabideak erabiltzen ikasteko programa.

Partaidetza irekia, aldeztu aurretik izena emanda CIVICAN liburutegiaren webgunearen bitartez: www.bibliotecaspublicas.es/CIVICAN



PRESTAKUNTZA JARDUERA

Visitas guiadas a la biblioteca

Martxoak 8 eta apirilak 19, astelehenak, 17:00. Liburutegia

> Gazte eta helduentzat.

Koordinatzailea: Lorena Gil.

Liburutegiko ataletan barrenako ibilbidea, funtsa antolatzeko sistema, katalogoak kontsultatzeko modua eta zerbitzuen funtzionamendua ezagutzeko. Idatzizko informazio osagarria emanen da.

PRESTAKUNTZA JARDUERA

La biblioteca en el bolsillo

Astelehenetan 12:00etan eta ostegunetan 17:00etan. Martxoaren 1etik apirilaren 29ra. Liburutegia

> Gazte eta helduentzat. Koordinatzailea: Rebeca Erro.

Prestakuntza saio pertsonalizatuak, liburutegiko baliabide digitalak erabiltzen ikasteko. Bakarka edo binaka. Norbere telefono, tableta edo ordenagailu eramangarriarekin:

1. KATALOGOA: sartu "Nire liburutegia" atalean, eta bilatu liburuak, eskatu erosketak edo berriak maileguak.
2. LIBURUTEGI DIGITALA: kudeatu mailegua plataforma digitalan (eBiblio, eFilm eta eMagazine).



Préstamo digital · Mailegu digitala

Malacatú Pensamiento
Familiak MiPrimeraVez
LaHoraDelCuento Actualidad
Ítaca EnClaveDe#F HuELLAS
EnFemenino Esperientziak
DanzaNavarra Talleres
LiburuzLiburu Poesía
DeVivaVoz Perspectivas
TerritorioJoven Elkartasuna
JakinMina Mediación
Literatura #CIVICANencasa
Contextos Creación
PrimeraInfancia Letrakide
Actualidad Biblioteca ArtLAB
#LabCIVICAN Kultura
Educación Mayores
ComunidadesEnRed